

Turismoa Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdean



Aukeren lurraldea

Berde eta urdin, aukeren lurraldera heldu zara

Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu
Hitzako zuzendaria

Udazkenaren zurrun-
biloan murgilduta
gaude. Zuhaitzak bi-
luzten ari dira. Ze-
laiak eta plazak hos-
toz janzten. Paisaiak
eder ageri dira, aisialdiaz goza-
tu nahi dutenei gonbidapena
eginez, eskuak zabal-zabalik.

Urtaroa edozein delarik ere,
asko eta ikusgarria eskainiko
dio bisitariari Lea-Artibai, Mu-

triku eta Busturialdeak. Berde
eta urdin, landa eremuaren eta
kostaldearen enkantuan mur-
gildu ahalko zara, denbora une
batez gelditu izan balitz bezala.

Naturaren handitasuna ar-
nastu ahalko duzu. Oinez zein
bizikletaz egin daitezkeen men-
di ibilbideak, ur kirol jardue-
rak..., aspertzeko aukerarik ez
duzu izango. Eta kulturaren
abentura nahiago izanez gero,
ateak zabalik dituzten museo
eta zentroak aukeratu ahalko
dituzu.

Egun bat, asteburu bat edo
egun batzuk igarotzera etorri,
ongietoririk eta beroena egin-
go dizugu. Aukeren lurraldera
heldu zara.

HITZA

**Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZAren
TURISMO GIDA • 2019ko udazkena**

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.

Lege Gordailua: BI-2906-03. **ISSN:** 2173-7118.

Kudeatzailea: Ama Lur Bedialauneta Ibaibarriaga.

Zuzendaria: Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu.

Zuzendariordeak: Asier Alkorta Bengoetxea
eta Aintzina Monasterio Maguregi.

Testuak: Asier Alkorta, Nerea Bedialauneta, Lore
Bengoetxea, Larraitz Ibaibarriaga, Ander Makazaga,
Ane Maruri, Aintzina Monasterio, Eider Mugartegi
eta Lander Unzueta.

Publizitatea:

Idurre Arrazola Astoreka eta Maribi Fernandez Zabala.
publibusturia@hitza.eus • 647 31 97 77
publilea@hitza.eus • 600 57 14 26

EGOITZAK:

Bermeo. Atalde 17, atzealdea, 48370. Tel.: 94-618 72 99.

Gernika-Lumo. Bekoibarra. San Miguel eraikina, 35. 1.
solairua. 48300. Tel. 94-627 10 85.

Markina-Xemein. Arretxinaga, 1 (behea), 48270.

Tel. 94-684 44 36. **Mutriku.** Barrenkale, 12 (behea), 20830.
Tel. 943-60 34 68.



HITZAk Bai Euskarari



JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:

www.busturialdea.hitza.eus

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus



Aurkibidea

MIKEL CARAVANING (Iurreta)	3
LEA IBARRA	4
AULESTI	5
MUNITIBAR	6
ALTZOA BASERRI-OSTATUA (Amoroto)	7
ZIORTZA-BOLIBAR	8
EUSKAL ZINE BILERA (Lekeitio)	9
ETXEBARRIA	10
ANTSOTEGI HOTELA JATETXEA (Etxebarria)	11
MARKINA-XEMEIN	12
BERRIA TUA	13
ONDARROA	14
MUTRIKU	15
ARBE HOTELA (Mutriku)	16
BASONDO (Kortezubi)	17
GAUTEGIZ ARTEAGA	18
HEMINGWAY KANALA HOUSE (Ibarrangelu)	19
EA	20
ELANTXOBEKO ZALDIXEK (Elantxobe)	21
EREÑO	22
POZO ZABALE ETXEA (Ereño)	23
NABARNIZ	24
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	25
AJANGIZ	26
ALDATZETA (Bermeo) EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	27
ERRIGOITI	28
ARRIZURIETA LANDETxea (Bermeo)	29
MUXIKA	30
BERROJA UPELATEGIA (Muxika)	31
LEA-ARTIBAI FEST'19 (Lea-Artibai)	32



**Autokarabanen,
kanperren eta banbinen
Bizkaiko alokairu zerbitzurik handiena!**



**I SALMENTA I EROSKETA I
ALOKAIRUA I TAILERRA
I OSAGARRIAK I APARKALEKUA I**



**Mallabiena industriagunea • N4A
48215 IURRETA (Bizkaia)**

696 509 373

www.mikelcaravaning.com



@mikelcaravaning





Lea ibaia, Bengoleako presatik pasatzean. JUNE PRIETO

Dabilen ura, pauso gidari

Leako ibilbideak Lea ibarraz goatzeko era ematen du; bailararen historiaz eta naturaz; ibaia gidari, lehenean, orainean eta geroan emango du urratsa bisitariak.

Bizi dator Lea ibaia Oiz mendiaren magaletik. Bailarari izena eta izana eman dion uraren ibilbidea jarraituaz, bisitan datorrena historiaz eta naturaz zipriztinduko da.

Lea ibilbideak 23 kilometro dauzka. Oiz mendiaren ipar isurialdean jaiotzen da ibaiaren emaria, gizon-emakumeen lehen bizileku izan ziren lurretan. Beste muturrean, Learen bokalean, erromatarren garaitik gaur arteko jardueraren aztarna arkeologikoak daude. Itsaso zabalari begira, antzinako burdinola eta merkantzien aterabidea zena. Erraz irudika daiteke ontzien joan-etorria, Sevillara, Indietara eta Europa Iparraldera bidean. Eta punta batetik bestera, Lea ibaia bidaide, historiaren gaine-



Bengolean, presako ur-jauziaren soinuak lagunduta, bisitaria energiiaz beteko da

an berba egiten duten arrastoak; XVI eta XVIII. mendeen artean Lea Ibarrak burdingintzari lotuta bizi izan zuen urrezko garaia irudikatzen duten zubi, erregebide eta ingenio hidraulikoak.

Aukeren bailara

Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti eta Munitibarrek osatzen dute Lea Ibarra; aukeraz betetako bailara. Historiaren parekoa da naturaren indarra inguruotan. Ben-

golea burdinola da horren adibide. Lea ibilbidearen erdia eginda, Bizkaiko burdinola garrantzitsuen izan zen leku berean, parajeok eder dira. Presako ur-jauziaren soinu lasaigarriak lagunduta, energia bila dabilen bisitariak lekuri aproposenean dagoela sumatuko du. Naturaren energia bazter guztietan arnas daiteke, halere. Ibilbidearen xarma bidera aterako zaio bisitariari, ia oharkabe. Opariaz gozatu, besterik ez du egin behar.

Lea ibilbidearen azken txanpan, Munitibarko lurretan, Bengola dago, energia berritzagarrien parkea; modu didaktikoan lehengo energia, gaurkoa eta bihurtutakoa azaltzen den gunea. Etorkizuna, iragariaren aztarnak ageri diren lekua. Lea ibilbidea behin eta berri des-kubritzeko gonbita.



Helbidea: Elexalde 1, Gizaburuaga

Telefonoa: 94-684 29 82

Faxa: 94-684 44 21

Posta elektronikoa: leaibarra@bizkaia.org

Webgunea: www.leaibarra.eus

Aulesti, mendiek eta ibaiak inguratuta

*Ingurune aberatsean
kokatuta, arteak,
ondareak eta naturak
bat egiten duten
herria da Aulesti.*



Aulestiko herrigunea Lea ibaiaren bailaran kokatzen da

Lea-Artibai eskualdearen bihotzean, Illunzar, Bedartzandi, Motrollo eta Urregarai mendiek inguratuta eta Lea ibaiak bustita. Herriguneaz gain, Aulestik zazpi auzo ditu, inguruko mendi magaletan: Narea, Urriola, Zubero, Ibarrola, Malats, Goierri eta San Anton. Guztiak ere, gune lasai eta naturalean kokatuta daude.

Mendi ibilbideak egiteko aukera eskaintzen du. Eta ibilbide horiek eginez, Bizkaiko ondare kulturalaren parte diren inguruko ermita guztiak ezagutzeko aukera ere bada. Ibilbide batzuk zer edo zer gogorrak badira ere, oro har, adin guztietako herritarrek egiteko modukoak dira.

Urregarai da tontorrik garaiena, eta haren gailurrak kolore biziz jantzitako egunsentia edota ilunabarra ikusteko aukera ematen du. Horrez gain, iparraldera begiratuz gero,



Kantauri itsasoaz gozatu ahal da; hegoaldera begiratuta, aldiz, Oiz mendia aurkituko du bisitariak. Baina Urregarai gailurra ez den bestelako altxorrik ere badauka: tontorraren azpian kokatzen den berdegune zabal eta lasaia.

Aisureta parkea

Herrigunera itzulita, eta udaletxe aurreko plaza alboratu gabe, Errekondo parkea eta Mikel Lertxundi eskultore berriatuarrak artez jantzitako Aisureta parkea bisitatu beharreko bi puntu dira. Errekondok umeekin egun pasa egoteko aukera eskaintzen du, eta bost minutuko osteratxo eginda, Aisuretak hai-zeari, urari eta suari Lertxundik egindako omenaldia erakusten du.

Gune, paisaia eta bestelako puntu interesgarriak ondo-ondo ezagutze-ko, herriko tabernek eta jatetxeek eguna igarotzen lagunduko diote bisitariari. Edonola ere, Aulesti, zerbait bada horixe da: naturagaz uztartuta bizi den Bizkaiko herria.

NON JAN, EDAN EDO LO EGIN

MARIANO JATETXEA

Kartara jateko aukera eta pintxoak eguneroko.

Helbidea: Aulestia kalea, 48.

Telefonoa: 94-627 90 24.

ZARRABENTA JATETXEA

Eguneko menua, karta eta pintxoak eguneroko.

Helbidea: Aulestia kalea, 34.

Telefonoa: 94-627 90 04.

ILUNZAR TABERNA

Asteburuetan zabaltzen da, eta pintxoak egoten dira.

Helbidea: Aulestia kalea, 29.

Telefonoa: 94-627 90 04.

UBILLA TABERNA-ATERPETXEA

Plater konbinatuak, bokatak, razioak eta pintxoak. Lo egiteko aukera ere bai.

Helbidea: Aulestia kalea, 4.

Telefonoa: 94-627 93 25.

Helbide elektronikoa:

ubilla.aulesti@gmail.com

ATXAGARAI ATERPETXEA

Helbidea: Urregarai mendian, Santa Eufemiko zelaian parean.

Telefonoa: 94-627 90 06.

Helbide elektronikoa:

administraria@aulesti.eus

URTEKO EKINTZA NAGUSIAK

JAIK: San Joan jaiak (ekainak 24) eta Santa Eufemi jaiak (irailak 16 eta hurrengo domeka).

ARTEDRAMA: Euskal Herriko antzerki topaketarik ezagunena Aste Santuko bigarren astean egiten da. Euskal Herriko antzerkilari gazteenentzako ikastaroa egoten da. Iluntzeetan herritar guztiei zuzendutako antzerki eskaintza zabala egoten da.



**AULESTIKO
UDALA**

Helbidea: Donibane enparantza, 1

Telefonoa: 94-627 90 06

Faxa: 94-627 91 17

E-maila: idazkaria@aulesti.eus

Webgunea: www.aulesti.eus



XVI. mendeko burdinolaren aztarnak daude Bengola Interpretazio Zentroan.

NON JAN ETA EDAN?

Lea taberna-aterpetxea.

Herriko plazan dago, frontoiaren ondoan. Terraza bat du kanpoko aldean, eta leku egokia da umeekin egoteko. Ogitartekoak eta plater konbinatuak eskaintzen dituzte.

Txori taberna. Mahaiak ditu kanpoan.

Pintxoez gain, urdaiazpiko, txorizo, kazola, entsalada eta plater konbinatuak eskaintzen ditu. Enkarguz txerri-kumea erreta jateko aukera dago.

Ondamendi taberna-denda.

Plaza parean, elizaren eta Txori tabernaren ondoan dago. Eguneko menua, ogitartekoak, plater konbinatuak... eskaintzen ditu.

Denda ere bada.

Sindikatu jatetxea. Eguneroko menuaz gain, kartara ere jan daiteke, astegunetan nahiz asteburuetan. Eskaintza zabala.

GARRAIO PUBLIKOA

BIZKAIBUS A3523 kodea.

Lekeitio-Aulesti-Galdakaoko ospitalea-Bilbo ibilbidea.

Geraletuak: Uribe, Munitibar, Zuzeta, Astorkigane, Berreño, Agarre eta Matxinena.

-Irteerak Bilbotik.

- Lanegun eta larunbatetan:

06:05etik 20:05era, ordu bitik behin.

- Igande eta jaiegunetan:

08:05etik 20:05era, ordu bitik behin.

-Irteerak Lekeitiotik.

- Lanegun eta larunbatetan:

05:50etik 19:50era, ordu bitik behin.

- Igande eta jaiegunetan:

07:50etik 19:50era, ordu bitik behin.

BIZKAIBUS A3922 kodea.

Munitibar-Etxebarria ibilbidea.

-Irteerak Markina-Xemeindik.

Astelehenetik ostiralera, lanegunetan: 12:20ean, 14:35ean eta 19:20ean.

-Irteerak Munitibartik.

Astelehenetik ostiralera, lanegunetan: 07:40ean, 09:40ean, 12:40ean eta 19:40ean.

-Irteerak Etxebarritik.

Astelehenetik ostiralera, lanegunetan: 07:10ean, 09:10ean, 12:10ean eta 19:10ean.

Lea-Artibai eskualdean, Oiz mendiaren babespean dago Munitibar, oinez zein bizikletaz egin daitezkeen ibilbideez inguraturik.

Asko dauka eskaintzeko Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzek. Oiz mendiaren (1.029 m) magalean, Lea-Artibairen eta Busturialdearen arteko mugan dago paisaia ikusgarriek inguratzen duten herri txikia.

Natura bete-betean, oinez zein bizikletaz egitea merezi duen mendi bidea aurkituko dute bisitariak; oraintsu konpondutako bidea.

Lea ibilbidearen abiapuntua ere Munitibarren dago. Lea ibaiaren bazterretik Mendexaraino doan 23 kilometroko ibilbidea da, Lea Ibarreko bost herriak zeharkatzen dituen: Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexa. Badago kilometro gehiago dituen

ibilbiderik egiterik ere: Oion (Araba), Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa-gaz lotzen dituen GR-38 edo Ardoa eta Arrainaren Ibilbidea.

Natur ondarea eta kultur ondarea eskutik doaz Munitibarren: zortzi ermita, parrokia bi, errota bi eta hainbat baserri eder eta urtegi txiki daude udalerrian.

Bisita gidatuak

Eta ondare guztien artean, XVI. mendeko Bengola da aipagarriena, Bizkaian dokumentatuta dagoen ola zaharrenetakoa. Natur Energia Interpretazio zentroa dago Bengolan gaur egun (Gerrikaitz Auzoa, 14). XVI. mendeko burdinolaren aztarna baliotsuak ikus daitezke bertan. Bisita gidatua eginez ezagutu daiteke zentroa, aurretiaz 649 79 54 84 telefonora deituta.

Eta Ekialdetik Mendebaldera, Done Jakue bidean murgiltzeko aukera; herritik igarotzen diren erromesentzat ez da falta izaten gastronomia eskaintzarik. Lau taberna daude herriguneari, bisitariak esku zabalik hartzeko prest.



Hona ez dator edonor...



Bosna oheko bi logela dituzu eskura, ganbara (goian) eta gela urdina (behean), atsedenerako zein jolaserako.



Turismo berban ez da kabitzen Altzoa. Gure etxea baserri bizia da, Amoroetoko Goiogane. Etxekotasuna da gure marka.

Hona ez dator edonor. Ez duzu Altzoa aurkituko turismorako etxebizitzak alokatzeko multinazionalen zerrendetan. Nahita. Hona datozenek badakite baserrira datozela, gure etxera datozela, ortua, basoa, oilarraren kukurrua eta ardien bekereke soinuak izango dituela lagun.

Hona ez dator edonor, Lea-Artibairen bihotzean gaudelako, hondartzatik hurbil baina era berean mendi arteko lasaitasunean. "Hau da bakea" izaten da bezeroen esaldia. Goizean arrautzak jasotzen lagundu, ortuan gurekin aritu... aukeran dauden esperientziak dira. Etxeko eta eskualdeko produktuekin egindako gosaria eta afaria ere aukeran daude. "Benetako" zaporeak berriz dastatzea.

Hona ez dator edonor. Baina behin etorrita, hurrengoan ere etortzea sarritan gertatzen da. Zabal hartzen ditugu urrutikoak eta gertukoak. Baina bereziki euskara ahoan dakartenak. Eta guztietan estimatuenak: euskalduntzen ari direnak. Horientzat eskaintza bereziak ditugu, bai oporraldietan, bai euskara praktikatzeko egonalditxoetan.



GOIOGANE BASERRIA • Amoroto (Bizkaia)

info@altzoa.eus
www.altzoa.eus

Maribi- Xabi
609 31 07 91





Ziortzako kolegiata.



Goikoetxebarri.

Ahozko tradizioan aberatsa da Ziortza-Bolibar; herria gozatzeko aukera ematen duten kontuetan.

Mitologiaren bidetik

Herri guztietan modura, Ziortza-Bolibarren ere mitoak eta elezaharrak utzi ditu tradizioak. Merezi du Markolako jentilari, Eztenabietako katu beltzari eta Ziortzako arranoari buruzko kontakizunak entzunda Ziortza-Bolibarren beste aurpegi bat deskubritzea; Ziortza-Bolibar iradokitzaile eta magiaz betea.

MARKOLAKO JENTILA

Ahozko tradizioan kontatzen denez, Goikoetxebarri baserriko senar-emazteak mendira joan ziren idiekin beharrera. Zapalduta agertu ziren, Markolako haitz puntatik jentil batek harriak bota zituelako. Jai egunez joan ziren lanera, hain zuzen, Oste-gun Santu Egunean, eta lan egiteagatik jasotako zigorra izan zen. Lanera joan eta harri azpian geratu zena gizon bat izan zela dioenik ere bada. Era batera edo bestera izan, harri azpian harrapatutako lagunak bat edo bi izan, nekazal munduan kristautasu-



«Markolako jentila, Eztenabietako katu beltza eta Ziortzako arranoa herriko kondairen protagonista dira»

nak eta jentiltasunak izandako presentzia erakusten du.

EZTENABIETAKO KATU BELTZA

Eztenabieta baserriko andreak gauez goruetan egiten zuen. Gau batean, Mari agertu zitzaion, euskal mitologiako jainkosa, katu beltz handi baten itxura hartuta. Handik aurrera, emakumea beldurtuta bizi zen go-

ruetan egiten zuen guztietan. Gau batean, senarra andrazko jantzi zen, eta katu beltza tximinatik sartu zen. «Gizona izan eta goruetan?», bota zion katuak. Orduan, gizonak: «Katua izan eta berbetan?». Gizonak goru-makila hartu eta betiko uxatu zuen katua.

ARRANO ETA BUREZURRA

968. urteko Ama Birjinaren Jaso-kundearen egunean, Santa Luzia-ko elizan fededunak meza entzuten zeudela, arrano bat agertu, kanposantutik burezur bat ahoan hartu eta sasitza batera eroan zuen, Ziortza non sortu behar zen aditzera eman nahian. Kondaira Ziortzako kolegiataren armarrarian geratu zen grabatuta, eta geroago, udalaren armarrarian.



**ZIORTZA-BOLIBAR
ELIZATEKO
UDALA**

Helbidea: Domingo Ugartetxea, 3
Telefona: 94-946 16 57 27
Faxa: 94-616 40 16
Posta elektronikoa:
udala@ziortza-bolibar.com
Webgunea: www.ziortza-bolibar.eus

EUSKAL ZINE BILERA

Azaroak 23-30

LEKEITIO
2019

42.

EUSKAL
ZINE
BILERA





Urko ibaiaren ertzetik, naturaz beteriko ingurunean zehar igarotzen da bidea.

EKITALDIAK

San Andres Jaiak. Azaroak 30.
Pazkoetako idi probak.
 Martxoaren 28tik apirilaren 6ra.
Santixau Jaiak.
 Uztailaren 22tik 26ra.

ZERBITZUAK

Ostatuak.

- ANTSOTEGI hotela: Altzaa auzoa, 15.
Tfnoa.: 94-616 91 00.
- TXOMIN Ostatua: Erribera 12.
Tfnoa.: 94-616 82 22 / 636 77 18 02.

Ostalaritza.

- OLAlA jatetxea: Alzibar auzoa, 1.
Tfnoa.: 94-616 63 94
- IRU BIDE taberna: Ibaun-Erdi.
Tfnoa.: 94-616 65 50
- OTSOLO taberna: Erribera, 10.
Tfnoa.: 94-616 88 80.

Historiaz betetako bidea

Etxebarriko Munibe jauregitik herriguneraino hiru kilometroko bidegorri bat dago. Herriko ondare natural eta kulturala ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Udazkena ibilaldiak egiteko garai aproposa izaten da. Kolore ezberdinez margotzen dira paisaiak, eta harat-honat ibiltzeraren gonbidatzen dute txoko berriak ezagutzeko. Ibilaldi lasai eta atsegin bat egiteko aukera paregabea eskaintzen du, esaterako, Etxebarriko bidegorriak. Urko ibaiari jarraiki, historiaz eta naturaz beteriko inguru ederretatik eramaten du ibiltaria, errota, burdinola eta dorretxe zaharren ondoan zehar.

Markina-Xemein eta Etxebarria lotzen dituen errepidearen albo batean dagoen Munibe jauregiaren ate handitik igarota, bi kilometro inguruko bide erraza dago Etxebarriko herriguneraino. Bidegorriaren zati bat andabidea eta errege bidea izan zen garai batean; gaur egun berriz, aisia, kirola eta kultura nahasten dituen pasealekua eskaintzen du.

Natura da bidelagun ibilbide oso-

an. Arboladi eta landaretzaz inguratuta dago lehenengo zatia, eta landa zabaleko paisaiak amaierakoa. Udazkenean, gainera, Urko ur emaria handitzen hasten da, eta txorien kantuarekin nahasten da bidean dauden ur jautzien doinua.



«Natura da bidelagun ibilbide osoan; arboladi ederretatik igarotzen da hasieran, eta landa zabaletatik amaieran»



Bidean zehar Etxebarriko jendearen eta ondarearen historia zati bat ezagutzeko aukera dago, interesguneetan aurkitu daitezkeen panelen laguntzarekin. Okoki parean dago lehenengoa, eta, dioenez, garai batean gune horretan oinetakoak aldatzen zituzten meza-tara zihoazen base-ritarrak. Aurrerago, Ama Birjinaren kapera txiki bat dago, eta bideari jarraiki aurkitzen dira Antsotegi errota, burdinola eta jauregia, bai eta Mañozka dorrea ere. Jarlekuak ere badaude, paisaiak gozatu eta atsedan hartzeko, eta herrigunera heltzeko komuna eta gimnasio txikia. Horrek guztiak familian edo lagunartean egiteko plan hobeezina bihurtzen dute.



**ETXEBARRIKO
UDALA**

Helbidea: Peñanekua Plaza, 1.
Telefonoa: 94-616 64 32/94 616 74 09.
Posta elektronikoa:
gbernando.etxebarria@bizkaia.org
Webgunea: www.etxebarria.biz



Antsotegi hotelaren kanpoko aldea. ANTSOTEGI

Harriak, egurrak, historiak eta naturak bat egiten dute XIX. mendean eraikitako burdinola honetan. Opor babesleku bikaina eskaintzen du Antsotegi hotelak.

Zentzumenezko oparia

Lea-Artibaiko bihotzean mendiz eta haran estuz inguratutako leku ikusgarri-netariko batean dago kokatuta Etxebarriko Antsotegi hotel-jatetxea. Kalamua mendiaren magalean eta Urko ibaiak zipriztinduta, harriak, egurrak, historiak eta naturak bat egiten dute XIX. mendean eraikitako burdinola honetan. Eraikinak jatorrizko egiturari eusten dio, eta kanpotik hori atzematen bada ere, barrutik ere txoko guztiek burdinola-ren aztarnak mantentzen dituzte.

Bisitariak gertutasuna sumatuko dute Antsotegira sartu orduko. Etxe-etxeke arreta eskaintzen dute hotelaren ardura daramaten Hernando anaiek; hamabost urte baino gehiago daramatzate etxeke atek zabaldu eta kanpotik datorrena beso zabalik hartzen.

Lea-Artibai eskualdearen arnagune berdean kokatuta, opor babesleku bikaina eskaintzen du Antsotegik. Hoteleko bisolairuetan banatuta dauden 14 logeak eskualdeko geografiara hurbilduko dute bisitaria. Antsotegi, gainera, leku zoragarria da edozein ospakizun ospatzeko ere. Jardunaldiak, ezkontzak,

jaunartzeak eta bestelakoak ospatzeko prestatuta dago.

Paisaia ederrez gain, euskal eta nazioarteko sukaldaritza tradizional zein modernoaren eskaintza gastronomiko bikainaz goatzeko aukera dago. Sasoian sasoiko produktuak baratzetik sukaldera eskaintzen dituzte, baita sasoiko arraina eta haragia ere.

Esperientziaz bete

Horri guztiorri esperientzia bereziak bizitzeko aukera gehitzen zaio. Hilean behin, kulturarekin lotutako hainbat ekintza antolatzen dituzte: tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak kontzertuak... Azaroan, gero eta arrakasta gehiago izaten ari den ardoen kata ere antolatuko dute. Gonbidapen bidez, Errioxako upategiek antolatutako kata berezian parte hartzeko aukera izango dute 180 bat lagunek.

Hotelak erakusgai dituen altxoreen artean, mendizaletasunaren historiaren zati batekin zipriztintzeko aukera ere badago. Emilio Hernando hotelaren sortzailea 1980an Everestera igo zen lehen euskal espedizioiko alpinista gazte-

ena izan zen, eta espedizioan erabiltako materiala ere ikusgai dago urte osoan.

Baina Antsotegiren eskaintza haratago doa. Bertoko instalazioak eta ingurune naturala aprobetxatuz, eta Leaktibairekin lankidetzan, aparteko paisaiez goatzeko aukera eskaintzen duten dozenaka jarduera harrigarrien artean aukeratu daiteke. Espeleologia, surf, coastering, paddle surf, eskalada, puenting...

Izateko eta gauzak egiteko modu berezia daukate Hernando anaiek. Eta horren guztiaren isla dira Antsotegi hotela eta jatetxea. Edonola ere, ikusteko, bizitzekoa eta sentitzekoa da Antsotegi.



Helbidea: Altzaa auzoa, Antsotegi errota, 15 (Etxebarria)
Telefona: 94-616 91 00
Posta elektronikoa: antsotegi@antsotegi.com
Webguneak: www.antsotegi.com
www.leaktibai.eus

Pausoz pauso gozatzeko herria

Paisaia ezberdinak ezagutzeko aukera ematen duen mendi ibilbideen sare oparoa dauka Markina-Xemeinek, ibiltari guztientzako aukera eder ugari eskaintzen dituen.



Santutxuko basiliza.



Bide zidorra.

Done Jakue bidea ezagutena bada ere, Markina-Xemeinek badauka urte osoan erabilgarri dagoen Mendi ibilbideen sarea. 1996 urtean eratu zuen herriko mendigoizale taldeak. Horrela, herri mailako bide zidor sare bat zeukan Bizkaiko hirugarren herria izan zen.

Guztira, Markina-Xemein inguruko herriei –Berriatua, Etxeba-

rria, Ziortza-Bolibar, Munitibar eta Aulesti– lotzen duen zortzi bide zidor daude homologatuta. Mendi-goizale taldeak oinezkoen begien lana egiten du, akatsak non dauden zehaztuz, eta udalak egiten du mantenua.

Bide zidor guztiek seinaleak dituzte, era guztietako ibiltarietarako modu errazean egin ahal izateko. Antzinako zorbideetatik igarotzen dira batzuk.



MARKINA-XEMEINGO UDALA

Helbidea: Goikoportala 3, behe.

Jendaurreko ordutegia:

08:15-14:30 (astelehenetik barikura).

Telefonoa: 94-6167454 • **Posta elektronikoa:** udala@markina-xemein.eus

Webgunea: www.markina-xemein.eus

Bide zidorrak

PR-BI 22, URKAREGIKO BIDEZIDORRA:

Markina-Xemeindik Urkaregi Mendatera [GR° 121 - GR° 123]. Distantzia: 9 Km; denbora: 2h.

PR°-BI 22.1, BARROETA ETA ARRETXINAGAKO SAIHESBIDEA:

PR-BI 22aren bidegurutzetik Markina-Xemeinera. Distantzia: 2,5 Km; denbora: 30'.

PR°-BI 23, MAX EDO KALAMUAREN BIDEZIDORRA:

Markina-Xemein eta Maaxa edo Kalamua mendia lotzen dituen bide zaharra [GR 121 - GR 123]. Distantzia: 8 Km; denbora: 2h 20'.

PR°-BI 23.1, BARINAGAKO SAIHESBIDEA:

Arantzamenditik Ibarguen baserri. Distantzia: 3,4 Km; denbora: 50'.

PR°-BI 24, ITURRETA ETA TRABAKUAKO BIDEZIDORRA:

Markina-Xemeindik Trabakuara. Distantzia: 10,3 Km; denbora: 2h 30'.

PR°-BI 24.1, IPARRAGIRREKO SAIHESBIDEA:

Iturreta auzotik Markina-Xemeinera [PR-BI 24arekin bidegurutzea]. Distantzia: 4,2 Km; denbora: 45'.

PR-BI 24.2, MENDIBILEKO SAIHESBIDEA:

Mendibil mendi-lepotik Donagaraira [PR-BI 24arekin bidegurutzea]. Distantzia: 2,3 Km; denbora: 30'.

PR°-BI 25, MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAIZKO BIDEZIDORRA:

Markina-Xemeindik Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz udalerrira. Distantzia: 12,4 Km; denbora: 2h 30'.

PR°-BI 26, AULESTIKO BIDEZIDORRA:

Bidezidorrak Aulesti Markina-Xemeinekin lotzen

du antzinako bideetan barrena. Distantzia: 9,7 Km; denbora: 2h.

PR°-BI 26.1, KOBAKOGANEKO SAIHESBIDEA:


Markina-Xemeingo Goiheritik [Arrate baserria] Atxondoa auzunera. Distantzia: 3,6 Km; denbora: 1h.

PR°-BI 27, URREGARAI ETA SANTA EUFEMIAKOKO BIDEZIDORRA:

Markina-Xemeindik Urregarai Zelaira. Distantzia: 5 Km; denbora: 1h 15'.

PR°-BI 27.1, URREGARAIKOKO SAIHESBIDEA:

Urregarai Zelaitik Larraz baserri. Distantzia: 1 Km; denbora: 15'.



Lea-Artibai bailaran kokatuta dago Berriatua, eta barnealdean badago ere, itsasoa besarkatzen duen 20 kilometro koadroko lur eremu zabalak asko dauka bisitariari eskaintzeko.

Hiriburuetatik uste baino gertuago, Berriatuak eskuzabal emango die ongietorria bisitariei. Txikia bada ere biziberrituz doan herria da. Euskal Herriko eremu euskaldunenak eskualdean dago, eta nahiz eta atzerritar kopurua handia izan, euskara indartsu mantentzen da. Hain zuzen ere, jatorri eta kultur aniztasunak oso aberatsa egiten du herriko giroa.

Herri nortasuna ere ondo mantentzen jakin du Berriatuak. Neguaren atarian egon arren, kultur ekimen askorekin gozatzeko aukera dago datozen hilabeteotan. Urteko ospakizunik herrikoienetako bat bihurtu da, esaterako, azaroaren azken asteburuan egiten den Erroak Loran jaia. Goikolau elkarteak antolatutako ekimenean herritarrek bihurtzen dira protagonistak.

Udalerrriak zesta-puntarekin ere lotura estua dauka. Zesta-punta barru-barrutik bizi izan dute, eta gaurgaurkoz, berriatuar batek baino gehiagok jokatzeko du pilota ikuskitun zirrargarriena. Berriatuaren izena kiroltasunez zabalitzen duten goi mailako puntistak eman ditu herriak, baita txapeldun handiak ere.



Altxor ezkutuz betea

Interes handiko hainbat altxor gordetzen ditu herriak, denak ere eza-gutu beharrekoak. Zalantzarik gabe, XVIII. Mendeko Etxe Pintxu jauregi etxea da ezagunenetako bat. Nabarmenezkoak dira garai bateko bizimodua erakusten duten eraikinaren aurreko hormako freskoak. Euskal Herrian gutxi dira pintzelkadaz pintzelkada margoturik dauden mota horretako eraikinak.

Askok dira Berriatuak dituen auzoak. Ondare kultural zein natural al-



Herritarrek, iazko Erroak Loran jaialdian batuta.

Herri anitz bizia

Udazkeneko magian murgiltzeko eta esperientzia berriez gozatzeko aukera ikaragarria eskaintzen du Berriatuak. Garai hau ezin hobea da herriko bizimodua goitik behera ezagutu ahal izateko.

detik oso aberatsak dira, eta bertako herritarren bizitasunak eta izaera adeitsuak bisitariak maiteminduko ditu.

Bizkaiko udalerrri honetan ondare historiko oparoa ikusteko aukera izateaz gain, jarduera ugari egiteko aukera dago, leku ugari bisitatuz eta esperientzia izugarriak biziz. Udazkeneko hilabeteak proposak dira horretarako. Temperaturak leuntzen eta hostoak kolorez aldatzen hasi diren urteko sasoi honek herrian zein inguruetan murgiltze-

ko gonbidapen erakargarria eskaintzen du. Familian zein lagun artean, oinez edo bizikletaz, baso, mendi eta zelai zabaletako airea arnasteko aitzakia ederra eskaintzen dute naturan bete-betean murgildurik dauden inguruetatik zehar egin daitezkeen ibilbideak.

Kulturak, naturak, gastronomiak eta batik bat jendeak berezi egiten duten topaleku paregabea da Berriatua. Asteburua edo eguna pasatzera datorrenak horiekin eta gehiagorekin gozatu ahal izango du.



**BERRIATUA
ELIZATEKO
UDALA**

Helbidea: Herriko plaza, 1

Telefonoa: 94-613 70 30

Faxa: 94-613 70 27

Posta elektronikoa: udala@berriatua.org

Webgunea: www.berriatua.org



Artibai erreka ur kirol jardueren topalekua da. KOASTA

Artibai errekek giroturik

Urak berebiziko garrantzia dauka Ondarroan; jarduera askok erreka eta itsasoa dituzte ardatz.

Urari erro-errotik lotuta dago Ondarroa. Artibai errekek, zubiek, Arrigorri hondartzak eta itsasoak janzten dute kostaldeko udalerraren paisaia ikusgarria.

Errekaren ibilguari jarraituz, ondo ezagutu daiteke Ondarroa, ibilbide irisgarria eginez. Errenteria auzoko bidegorrian hasiko dugu paseoa, Alleritik gertu, herriaren biriketan bertan, padura eta naturaz inguraturiko paraje ederrean.

Ibilian-ibilian, Zaldupeko Zubia ikusiko dugu ezker aldean, arku zuri txikiak apainduta. Aurrera egin, eta Zubi Barrria lehenengo eta mundu guztiko margolariak erakarri izan dituen zubia aurkituko dugu ondoren: Zubi Zaharra. Bere harrizko pasabidea zeharkatuta, herriaren bihotzera, Alde Zaharrera iritsiko gara. Inguruan dauden taberna eta jatetxeetan mimo handiz prestatu-



«Harrizko pasabidea zeharkatuta, herriaren bihotzera, Alde Zaharrera iritsiko gara»

riko arrain fresko-freskoarekin eta danetariko osagaiekin egindako pintxo zein platerak dastatzeko aukera ezin hobea izango da.

Ibaia berriz gurutzatuta, kukaña –uda denboraldian aisaldi gune bezala egongo da erabilgarri, berme guztiekin– eta Ondarru Arraun Taldearen egoitza aurkituko ditugu. Ume eta



gazteek hain gustuko dituzten jardueren topalekua.

Arrauna ezeze, uretako jarduera askoz gehiago ere praktika daitezke.

Errekan zein Arrigorri hondartzan, ur kiroletan murgiltzeko aukera ematen du Koastak udan, besteak beste, kayak eta paddle surfean aritzekoa, kostaldeak gordezten dituen sekretu ederrenak ezagutuz. 2020an, udaberrian hasteko asmoa daukate, maiatzean.

Hondartzatik hurbil daude herriko zubirik zaharrena–Plaiko Zubixe– eta berriena –Santiago Calatravak egindako Itsasaurre Zubia–. Plaiko Zubixe konpontzen ari dira azken hilabeteetan, eta udarako erabilgarri egotea aurreikusten da. Ondare kultural izendatua, birakaria izango da berriz.



**ONDARROAKO
UDALA**

TURISMO BULEGOA

Erribera 9 (Kofradia Zaharra)
Telefona: 94-683 19 51 • E-posta: turismobulegoa@ondarroa.eus
Aurki gaitzazu: udalbarriak.eus





Ezkerrean, Mutriku, portutik ikusita. Eskuman, herritar batzuk mendi ibilaldi bat egiten. Behean, Laranga auzoa.

Behetik gora zein goitik behera. Horixe da Mutriku ikustean bisitari orok begiradarekin egingo duena. Gipuzkoako ipar mendebaldean kokatuta, kostaldeko harribitxi bat da Mutriku. Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkean sartuta, itsasoari oso lotuta egon den eta dagoen herria da, baina aldi berean, beste horrenbesteko lotura dauka mendiarekin ere.

Behetik, itsasotik hasteko, bere portua gure kostaldeko altxorretako bat da. Antzina bale harrapatzaileen portu izandakoa. Bista-bistan dauka arrantza herriko motor ekonomikoa izan zela, eta horren adibide dira oraindik ere Mijoa industrialdean kokatzen diren Gipuzkoako kontserbera garrantzitsuenak. Urteak pasatu ahala, izaera galdu gabe egokitzen jakin duen portua da.

Monumentu Multzoz izendapena daukan herriguneak. XV. mendetik XVIII. mendera arteko ondare ikusgarriak gordetzen ditu, tartean azpimarragarria den Arrietakua Jauregia, gure kostaldeko Itsas Ondarearen harribitxia.

Hiru mendi ibilbide

Gorantz jarraituz, Arno mendiko gailurraren begiradapean geratzen dira Laranga, Galdona eta Olatz auzoak, ibilbide ezberdinen bidez erraz ezagutzekoak.

Olatz Geoparkearen harrizko biho-

Oinak kresaletan, burua mendietan

Euskal Kostaldeko Geoparkean kokatuta, lurraren historia, itsas ondarea, bailara karstiko ezkutatuak eta landa guneetako tradizioak ezagutzeko ibilbideak ditu.

tza da. PR GI 47 geo-ibilbide zirkularrak (6,5 km) Olatz bailara ezagutzeko aukera ematen du.

Bailara oso itxia da, hurbil dagoen arren askorentzat ezezaguna da. Ibilbidean zehar, etnografia intereseko elementuak aurki daitezke, hala nola, karea egiteko erabiltzen ziren karobiak.

Laranga auzoak eta Galdonak bestelako itxura dute; berdegune zabalak dira itsasoaren zaindaria. Bi auzoetatik igarotzen da Gipuzkoa osoa



zeharkatzen duen GR-121 ibilbidea. Kresal usaina alboratu gabe, mendiak eskaintzen duen guztiarekin ondo pasatzeko aukera ematen dute bi auzoak. Ezin PR-GI-22 ibilbide zirkularra (21 km) aipatu gabe utzi. Mutrikuko herrian hasi eta amaitzen den ibilbide honek hiru tontor zeharkatzen ditu: Arno -Natura 2000 sareko gunea (601 m)-, Jan-goikomendi (528m) eta Tontorra-mendi (386m). Ibilbidean, Galbaixo eta Santakutzeko ermitez, hilarriez eta naturaz gozatzeko aukera dago.



TURISMO BULEGOA:
Txurruka Plaza z/g
Telefonoa: 943 60 33 78
turismo@mutriku.net

www.mutriku.eus





ZERBITZUAK

Kafetegia • Doako aparkalekua • Harrera 24 ordutan • Eguneroko prentsa • Wifia • Satelite bidezko telebista • Spa (2 etzaulki termiko) • Catering zerbitzua • Ibilbide kardiobaskularrak.

Geotermia. 100 metroko sakontasuna duten zuloen bidez lurraren berotasuna eramaten dugu eraikuntza sarera, udan klimatizatzeko eta neguan, berri, beroa emateko. Honetaz aparte, euri ura erabiltzen dugu gure belardiak eta baratza ureztatzeko.

Bilera gela. Enpresatako bilerak zein beste batzuk gauzatzeko aukera ematen dugu.

Masajea eta sauna. Bakarka edota bikoteka erlaxazioaren sakontasunera abiatzeko bidaia.

Ordubeteko masajearen ondoren sauna eta etzaulki termikoetan etzateak lasaitasunaren puntu goreneraino eramango zaitu.

Gure dendetxo. Gure inguruan ekoiztako produktuak saltzen ditugu.

Gosariak. Eguneroko ateratzen ditugu geure laboreen berotasunetik produktu ekologikoez egindako pastelxo eta gozokiak, zuku naturala, jogurtak. Gosari eder bat eguna ondo hasteko.

Hatz marka digitala. Hatz-marka digitalaren bidez irekitzen dira logeletako ateak, horrela, nahi duzunean itzul zaitezke gure hotelera, eta ez duzu giltza galtzeko beldurrik izango.

Natura errespetatuz.

Garbiketarako produktuak aukeratzeko orduan kontuan dugu beti naturarekiko errespetua.

Igerilekua. Uretan zaudelarik igerilekuko urak Kantauri itsasoarekin fusionatzen eta bertan itsasoratzen direla dirudi.



Mutriku eta Deba artean kokatuta, Kantauri itsasoak bustitzen duen Gipuzkoako badia ikusgarriaren gainean dago Arbe hotela. Euskal Kostaldeko Geoparkean dago kokatuta; itsas labarrean, itsasertzeraino jais-ten diren pinudi eta artadi artean. Eta kokapenari esker, inguruaren edertasunaz gozatzeko aukera eskaintzen die bisitariei.

Lasaitasunaren gotorlekua da, non itsasoak, mendiak, paisaia ikusgarriak eta naturaz gozatzeko ekin- tzeak bat egiten duten.

Eraikinari dagokionez, Alejandro Arrospide arkitektoak proiektatu- tako tonu gorri, zuri eta beltzeko eraikin abangoardista dauka hotelak. 11 gela ditu, 10 bikoitzak, eta ho- rrietako bat dibertsitate funtzionala dutenentzat erabat ekipatua. Bakarka- ko erabilerarako dago prestatuta beste bat.

Logelak Eus- kal Herriko zazpi probintzien eta maite ditugun beste zenbait herriren izene- kin lotu/izendatu ditu- gu, eta bisitariaren be- girada Kantauri itsa- soan proiektatzeko diseinatua daude. Ber- tako bistek goizeko egun argiz eta gaueko iluntasu- nez gozatzeko aukera ematen dute, ohetik bertatik altxa gabe.

Hotelak energia geotermikoa erabiltzen du, lur azpiko tenperatura aprobeztatzeko. Lur azpitik eraikun-

Arbe, itsaso aurreko paradisu lasaia



Euskal Kostaldeko Geoparkean kokatuta, Mutrikuko Arbe hotelak ikuspegi paregabea, natura, gastronomia eta ibilaldiak eskaintzen ditu.



tza multzorainoko sarea dauka eginda, udan klimatizatzeko eta neguan beroa emateko.

Arbe hotelak Eusko Jaurla- ritzaren Euskal Turismo Saria eskuratu zuen 2015ean.

Helbidea:

Laranga Auzoa, 5, Mutriku

Telefonoa: 943-60 47 49

Posta elektronikoa:

info@hotelarbe.com

Webgunea: www.hotelarbe.com

BASONDO BABESLEKUA

BISITA MOTAK

Norbanakoak: Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaiotzak, espezie berriak...] Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak [euskaraz eta gaztelaniaz]. Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri oro azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta [haur zein nerabeak]. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Neguko ordutegia (irailaren 1etik ekainaren 30era):

Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara [15:00etan irteteko].
Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 11:00-17:00 [18:00etan irteteko].

Udako ordutegia (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra):

Egun guztietan 11:00etatik 18:00etara [19:00etan irteteko].

PREZIOAK

Norbanakoak:

Helduak 9 euro
eta umeak 5 euro.

Taldeak:

Bisita gidatuetarako erreserba egin behar da beti. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, gidaria dohainik izango da, eta gutxiagokoa bada, taldeko 35 euro ordaindu beharko dira.



Animalia gehienek ia sendaezinak dituzten kalteak dituzte. BASONDO

Mehatxatutako basofaunaren babesleku

Berreskuratze Zentroetatik etorritako animaliak daude Basondon. Animaliez eta naturaz gozatzeko eta ikasteko aukera eskaintzen du Busturialdeko naturaparke garrantzitsu honek.

Basurdeak, orkatzak, oreinak, azeriak, basakatuak... Inguruko animalia ezagunak zein gaur egun Euskal Herrian desagertuta daudenak biltzen dira Basondon. Bisitan hurbiletik behatu ahal izango dituzue antzina gure basoetako biztanleak ziren beste espezie batzuk ere: otsoa, katamotzak edo bisonteak.

Ez da zoologiko bat, Basafaunaren babesleku bat baizik. Animalia

gehienak Berreskuratze Zentroetatik etorritakoak dira. Ia denek sendaezinak diren kalte batzuk dituzte, eta, beraz, ezinezkoa da naturara berriro birsartzea.

Horrez guztiaz gain, Basondon animalien zainketa eta sentsibilizazio zein ingurumen hezkuntzarekin lotutako lanak ere egiten dituzte.

Animaliez eta naturaz gozatzeko leku aproposa da faunaren aterpe hau. Bisitariei animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen diete, eta esaterako, bisitetan taldekideen adinaren arabera naturari buruzko azalpenak ematen dituzte.




Helbidea: Basondo auzoa, 6 (Kortezubi, Bizkaia).

Telefona: 94-625 44 36

Posta elektronikoa: info@basondo.com

Webgunea: www.basondo.com



'Tbilaldi of Styles' ekimenak grafitiz bete du udalerrria. NUEVA EUROPA



Urdaibaiko itsasadarra bisitatu eta Gautegiz Arteaga ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du ibilbide berriak. NUEVA EUROPA

Murgil zaitez koadroan

Gautegiz Arteaga pausoz pauso. Jasangarritasuna, aisialdi osasuntsua, natura eta artea harmonian bultzatzeko bidea aurkeztu du udalak.

Gautegiz Arteagara Gernika-Lumotik oinez egiteko ibilbideak Urdaibaiko padura, hareatza eta hezegunea zeharkatzen ditu. Bertan, herriko txoko ederrtan grafiti arteaz gozatzeko aukera izango du gune zoragarri hori eza gutzera hurbiltzen denak.

Urdaibaiko itsasadarraren eskuinaldetik doa ibilbidea, atsegina eta irisgarria. Natura eta oinez gustura ibiltzea gogoko dutenentzako guztiz erakargarria da. Gautegiz Arteagan kalitatezko turismo jasangarria sustatzearen alde udalak egindako lana agerian uzten du. Gernika-Lumoko erriobarria delakoari segi eginda, Oka ibaiaren ibilguari lotuta hasten da. Bost kilometroko ibilbideak beti dotorea eta naturala den Gautegiz Arteagako herrira eramango gaitu. Bidezidorra jarraituz, itsasadarra gaindituko dugu egurrezko pasagunetik.

Kortezubiko Enderika auzora helduz, San Esteban basiliza aurkituko dugu. Handik ezkerretara irteten

den saihesbidea hartu, eta ihi, lezkadi, munak eta padurak zeharkatuz, gure jomugara helduko gara. Aberastasun handiko ekosistema da hau, paisaia ederra bezain aldakorra eskainiz. Bertako fauna eta floraren koloreek gustura murgiltzen garen koadro baterako kolore-paleta ideala sortzen dute. Paduran babeslekua bilatzen dituzten hegaztiak begitatzeko behatokiak dauka bertan. Gautegiz Arteagara heldzerakoan, Urdaibai Bird Center aurkituko dugu. Naturaren museo bizia da, hegaztien ikerketarako zentro eta behatoki pribilegiatua. ornitologia zaleentzako ezinbestekoa.



Grafitiaren herria

Kolore-paleta bizitu egiten da herri-ara ailegatzean. Bertan, grafiti kaleartearen sormenezko adierazpenek harrituko gaituzte. Hauek herriko txokoak «interpretatzen» di-

tuzte *Ibilaldi Of Styles* ekimenaren ondoren.


Gautegiz Arteaga mihise bizian bilakatzen da; artista desberdinek sortutako artelanak ikusi ahal dira kale-arte erakusketarako herri ibilbidean. Grafiti artearen sormen

plastikoa sustatzeko herriko ekimen kultural eta turistiko honek seinaleztatutako ibilbideari jarraituta, herriko hainbat txoko ikusiko ditugu.



**GAUTEGIZ
ARTEAGAKO
UDALA**



Helbidea: Herriko Enparantza, 1
Telefonoa: 94-625 29 53
Posta elektronikoa:
udala.gautegiz@bizkaia.org
Webgunea: www.gautegizarteaga.com



HEMINGWAY Kanala House

Zure zain gaituzu

Disfrutatu ikuspegi panoramiko paregabeaz eta nahi beste ekintzez, ez egon zain beste batek kontatzeko, etorri gure eskualde txiki hau bizi eta sentitzera.



666 68 08 01 • 618 77 43 98

Kanala Auzoa, 19 • Sukarrieta – Bizkaia

casaruralkanala@gmail.com

<https://casarural-kanala.com/eu/>





Burdinaren merkataritzaren gorakadak berpiztu zuen Urtubiaga burdinola.

URA JARRAITUZ IBILBIDEARI BURUZKO DATUAK

Ibilbidearen hasiera
eta amaiera:

**Donibane plaza,
udaletxe aurrean.**

Luzera: **7,7 kilometro.**

Metatutako igoera:
200 metro.

Ibilbidearen iraupena:
2 ordu eta 50 minutu.

Zailtasun maila: **Ertaina.**

Interesguneak:

**Goikoetxe, Lejartza eta
Olagorta errotak; Allua eta
Iturgorta iturriak eta
Urtubiagako burdinola.**

Urak dakarren altxorra

Urak herrian aspalditik izan duen garrantzia ezagutzeko ibilbide berezi bat dute Ean. Errotak, iturriak eta burdinolak daude bertan ikusgai.

Herri txikia bada ere, bizitzaz blai dago Ea. Bi auzo nagusi (Bedarona eta Natxitua), itsasoa eta erreka ugari ditu. Ondare natural, historiko eta industrial garrantzitsuak ditu, eta urtero-urtero ezagutzera hurbiltzen dira hainbat bisitari.

Ura da herriaren motorra. Horrela izan da aspalditik, izan ere, eatarrek egunerokotasunari aurre egiteko ura kudeatzen ikasi dute mende mende. Eta elementu natural horren balioa goratzen duen ibilbide berezi bat dute bisitariei eskaintzeko.

Herrigunetik ihesi, udaletxe erreko Donibane plazan hasi eta Natxituara bidean dagoen Goikoetxe erreka jarraituz ekingo diote ibiltariek ibilbideari. Aritz, lizar eta beste hainbeste zuhaitzez osatutako basoetan murgilduz, Algortako

tontorra eta Allu mendia zeharkatu, eta Ea errekaekin egingo dute aurrez aurre topo. Ingurune aberatsa da *Ura jarraituz* ibilbidea. Izan ere, errotak (Goikoetxe, Legartza eta Olagorta), iturriak (Allua eta Iturriña), iturburuak eta burdinolak ageri dira, denak ere uraren indarrarekin lotutakoak.

Urtubiaga burdinola

Itsasoa helmuga izanik, herrira itzuli eta ibaien gaineko harrizko lau zubiak aurkitu aurretik, erreka ertzean dagoen Urtubiaga burdinola eta errota da bereziki arreta ematen duena ibilbidean.

Lekeitioko Andra Mari elizaren 1487ko eta 1499ko agiriekin dakartzate Urtubiaga burdinolari buruzko lehen aipamenak, baina burdinaren merkataritzaren gorakada aprobetxatuz, 1725ean berreraiki zuten gaur egun oraindik ere zutik dirauen eraikina.

Urte gutxi batzuk beranduago, jabez aldatu eta baserria eraiki zuten burdinolara itsatsita. Tailer bat, bi bulego txiki eta tunel hidrauliko bat eraiki zituzten. Mende oso bat egon zen eraginkorki funtzionatzen, uraren indarra erabiliz burdina ekoizteko baldintza paregabeak betetzen baitzituen inguruneak. Gaur egun burdinola erabilgarri ez badago ere, bisitari askok begiz jota duten eraikina da, Earen iragan zein balio etnografikoaz jabetzeko aukera ezin hobea.



**EAKO
UDALA**

Helbidea: Donibane enparantza, 2

Telefonoa: 94-627 52 27

Faxa: 94-627 51 99

Posta elektronikoa: udala.ea@bizkaia.org

Webgunea: www.eakoudala.eus

www.eaturismo.eus



ELANTXOBEKO ZALDIXEK

Zaldiaren egoera naturala errespetatzen dugu; hori da gure zaldiek talde txikietan libre bazkatzeko arrazoia. Maisu handiak dira.

ESPERIENTZIA zaldiekin

Kasu honetan, zaldia beraien habitatean duten portaera, beraien gorputz-espresioa eta taldearen portaera behatuta, elkar eragingo dugu, geure baitan murgilduz. Jarduera hau familiei, taldeei eta edozein pertsonari gomendatzen diet, zaldia behatuz, gure portaeraren hausnarketa egiteko. Geure baitan sartzen lagunduko digute.

COACHING PROZESUA zaldiekin

Zaldiekin egiten den Coaching zerbitzua berez terapia ez izan arren, oso terapeutikoa izan daiteke, zaldien presentziagatik. Zaldiekin egiten den Coaching zerbitzua gure egoeratik nahi dugun beste egoera horretara igarotzeko bide-laguntza bat. Autoestimua, lidergoa, taldearekiko konexioa, erabakiak hartzeko gaitasuna eta abar landu daitezke. Lurretik egindako jardueren bitartez, zaldi gainean jartzeko beharrik gabe eta galdera metaforikoak erabiliz. Zaldiek egingo dute egin behar ditugun aldaketek kontziente izatea, sentitzen dugunaren, esaten dugunaren eta azkenean egiten dugunaren artean koherentziak jarduteko.



PASEOAK ZALDIZ

1. IBILBIDEA

Ibilbide honek ia Ogoño lurmuturraren tontorreraino garamatza. Ondoren, inguratuz jaitsiko gara, Ogoñoren bertikaltasun ikusgarriaz ohartzeko, ia LAGABURU izeneko ingurura iritsiz, eta hortik bueltan hasierara

2. IBILBIDEA

Ibilbide honetan inguruko hainbat leku eder ezagutuko ditugu: Elantxobe, Akorda, San Pedro eta Kanala. Gero Elantxobera itzuliko gara. Ibilbide honek aukera ematen digu Kanalan bazkaltzeko, horrela egunari amaiera paregabea emanez.

BESTE IBILBIDE BATZUK

Ibilbide ezberdinak prestatu daitezke zaldi gainean daukazuen mailaren arabera. Galdetu eta aukerarik onena prestatuko dizugu.




JOSEBA MUNIZ
639 42 52 83

jmunamu@gmail.com

Arte eta naturaren kabia

Herriko txoko ederrenak batzen dituen zaldi ibilbidea, Ereñozar edota marmol gorria oinarri duen arte galeria. Miretsi eta txundiarazteko asko dauka Ereñok.



IE-042 Ereño-Nabarniz zaldi ibilbidea eta Ereño Arte eta Natura Behatokia. URDAIBAI ZALDI TALDEA/HITZA

Santimamiñeko kobaren gainean, Urdaibaiko itsasadarraren ikuspegi pribilegiatua eskaintzen du Ereñozarrek. Bertan, San Migel baselizak denboraren joanari eutsi dio. Ereñora doan bisitariarentzat huts egin ezineko geldialdia da. Bertakoak ere sarri igotzen dira bertara, eta esaterako, Mikel Deunaren jaietan elkargune berezia izaten da.

Belaunaldiz belaunaldi zaindu-tako tradizioari eusten diete ereñarrek, baina garai berrietara egokitu, eta bestelako eskaintzak ere baditu Ereñok. Horren adibide da IE-042 Ereño-Nabarniz zaldi ibilbidea. Urdaibai zaldi taldeak pinudi, artadi eta hariztiekin osatutako paisaia ederretatik zehar igarotzen den ibilbidea proposatzen du. 28,5 kilometroko ibilbide zirkularra da, Ereñoko Gabika auzoan hasi eta amaitzen dena. Bi udalerrietako interes turistikoko zortzi bat leku

biltzen ditu, eta lehen geldiunea San Migeleko ermita da. Mendiandi, Busterrigane, Monjosuri, Ereño, Nabarniz eta Gizaburuko mugarrria, Galarregi, Airoko pagadia, Ineritze leizea, Iluntzar..., leku liluragarri asko bertarik bertara mirestea aukera eskaintzen du aipatu ibilbideak. Zaldi ibilbidea bada ere, oinez zein bizikletaz ere egin daiteke.

Zentzumenen arte galeria

Ereñoko marmol gorriaren fama aspaldikoa da, baina bertan proiektu berritzailea sortu dute aurtan Rober Garai mundakarrak eta Alberto Palomera bilbotarrak.

Harrobira joan, sormenari eragin eta obrak sortuz, naturan bertan egindako artea dakarte. Arte eta Natura Ereño Behatokia Sintonia Arrecifal arte galeria erraldoia da. Gerandape eta Geranda erdiko harrobiak arte garaikidez bete dituzte, zientzia eta makineria artistikoa uztartuz. Zentzumenak pizten dituzten loturak ezartzen saiatu dira, modu desordenatuan. Uki daitezkeen testurak usaintzea lortzea, koloreak entzutea edota lurriak ikuskatzea, adibidez. Zentzumenak antzemateko modua nahastu dute, aspaldiko garaiekin lotura eginda. Bisitaria obra osatzen duen pieza da.



**EREÑOKO
UDALA**

Helbidea: Elexalde, 10
Telefona: 94-625 46 21
Posta elektronikoa:
udala.erenobizkaia.org
Webgunea: www.erenobizkaia.org



**Bai lagunekin,
bai familiarekin**

Lasaitasuna eta natura arnastuz

*Wifia, irisgarritasuna, aparkalekua, lorategia altzariakin,
barbakoa, sehaska, izarak eta toallak, zoru erradiatzailea,
(berogailua), telebista....*




Elxalde- Zeeta, 11 • EREÑO

646 377 628

pozozabale@gmail.com





Iluntzarreko tontorreko ikuspegia.

Kostako begiratokien lekua

Xarmaz beteriko txoko eta ibilbideak eskaintzen ditu Nabarnizek. Bizkaiko kostaldeko mendirik altuenaren lekuko ere bada, Iluntzarrena.

Begiratoki eder asko daude Busturialdeko txokoetan; ez, baina, Nabarnizen aurki daitezkeen beste. Itsasoaren mailatik 360 metrora, medialdean dagoen nekazari herri lasai bezain naturala da, eta hainbat herrirekin egiten du muga. Herriek ez ezik, mendi tontorrek ere inguratzen dute; izan ere, Iluntzar, Galarregi eta Arrola gailurren artean dago kokatuta Nabarniz.

Iluntzar da udalerriko mendirik garaiena, eta baita Bizkaiko kostaldeko mendi altuena ere; 727 metroko garaiera du. Mendi gailurrean Aulesti du herri muga, eta mendilerro berean daude Saraua (669m) eta Motrollu (591m), besteak beste.

Iluntzarreko tontorrean dagoen begiratoki natural eta lauak aparteko panoramika dauka. Askok dira begiratoki natural horretatik ikus daitezkeen herriak zein mendiak. Mendebaldean Urdaibaiko panoramikaz goza daiteke, Sollube atzean dagoelarik. Hegoalderantz Oiz mendia gailurra ikusten da, baita Aiz-

korriko mendikatea ere. Ekialdera begiratuta, berriz, Gipuzkoako kostaldea antzeman daiteke, Lapurdiraino. Ipar-ekialderantz jota, inguruko gailurrak aurki daitezke: Aio-mendi (544m), Galarregi (600m) eta Axola (575m).

Galarregirako bidean antzinako meatzeak ikus daitezke, eta Arro-lako tontorrerako bidea haritzez, pagoz zein gaztainondo inguratuta egingo dugu.

Herrigune bizia

Ingurune naturalean ibilbideak egiteko aukera izateaz gain, herrigunean gozatzeko hamaika aukera dituzte bertaratzen direnek. Ele-



xalden probalekuetarako frontoia dago, baita ume zein gazteen-tzako egokitutako parkeak ere.

Herriko sei auzoetako festak ere elkartzeko aukera paregabea dira nabarniztar zein inguruko herritarrentzat; andramariak dira jai nagusiak.

Non jan Nabarnizen?

Aboitz Taberna.

- Helbidea: Elexalde auzoa, 11.
- Telefonoa: 94-625 50 28.

Herriko Taberna Jatetxea.

- Helbidea: Elexalde auzoa, 2.
- Telefonoa: 94-617 86 82.

Nabarniz Jatetxea.

- Helbidea: Elexalde auzoa, 42.
- Telefonoa: 94-625 05 58.



**NABARNIZKO
UDALA**

Helbidea: Elexalde auzoa, 14
Telefonoa: 94-625 50 77
Faxa: 94-625 65 12
Posta elektronikoa:
udala.nabarniz@bizkaia.org
Webgunea: www.nabarniz.eus



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

ERAKUSKETA IRAUNKORRA




1

Zer da bakea?



2

Zein ondare utzi digu
Gernikako
bonbardaketak?



3

Bizitako bonbaketa



4

Zer gertatzen da gaur egun
munduan Giza Eskubideekin?

GERNIKAKO BONBARDAKETARI BURUZKO DOKUMENTAZIO ZENTRUA

dokumentaziozentrua@gernika-lumo.net



HEZKUNTZA ARLOA

TAILERRAK, BISITA GIDATUAK...

hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net

Izena eman eta gure ekintzen berri izango duzu. <http://bit.ly/2A7djGR>

NEGUKO ORDUTEGIA (azaroa-otsaila):

10:00-14:00 / 16:00-18:00 (martitzenetik zapatara) • 10:00-14:00 (domeketan)

• astelehenetan, itxita.

Foru Plaza, 1 GERNIKA-LUMO • 94-627 02 13 • museoa@gernika-lumo.net

www.bakearenmuseoa.org





NON LO EGIN?

ARISTIETA NEKAZAL TURISMOA

Kanpantxu auzoan dagoen XVII. mendeko Jauregi berriztatua da. Nekazaritza ekologikoaren zentroa ere bada.

**Telefonoak: 94-625 85 00
630 22 50 01**

ASTOBIETA LANDETxea

Kanpantxu auzoan dagoen ostatu zaharberritua.

Telefonoa: 679 05 79 05

LURRASKA

Nekazaritzako interpretazio zentroa den baserri eskola da. Aterpetxea ere bada.

Telefonoa: 94-625 72 45

tzeko tarte hartu ohi dute. Izan ere, Gernika-Lumoko bista pribilegiatua dauka Ajangizko plazak.

Belaunzaranen eraikinak

Herrian bertan ere, badute zer ikusi. Mendieta auzoaren erdigunea Jauraren Igokundearen elizak, udal-txeak eta Herriko tabernak osatzen dute. Hirurak Juan Bautista Belaunzaran arkitektoarenak dira. XIX. mendean eraikitako «gune urbanistiko neoklasikoa» osatzen dute hiru eraikinek plazan.

Bertatik ez oso urruti, bestalde,

Marmizetik Ajangizera doan

zen erromesek Auzokoa

baserria aurkituko

dute aurrez aurre. Be-

launzaranek urre ko-

loreko hareharriz

egindakoa da, neo-

klasikoa. XVII. men-

dekoak dira baserriari

buruzko lehen aipame-

nak, eta 1820an guztiz berre-

raiki zutela jasota dago. Auzokoa ba-

serriak duen elementu nagusia ar-

kudun ataria da.



Erromesen bidea

Donejakue bidea egiten duten erromesek ondare neoklasiko garrantzitsua izaten dute zain Ajangizko Mendieta auzoko plazan.

Burgogana mendia jaisten hasi bezain laster, erromesek Donejakue bideak iberriar penintsulan duen iparraldeko ibilbideko bosgarren etapa amaitzea besterik ez dute buruan. Goizean goiz, Markina-Xemeindik irten ohi dira, eta Gernika-Lumo izaten dute helmuga. Hiribildura iritsi aurretik, ordea, ezusteko bat izaten dute zain.

Mendiaren ekialdeko hegalean barrena Ajangizera iristen dira ibiltariak, baina badaude Zarratik zuzenean, Marmizetik igarota, herrira zenbait arinen heldzea amesten dutenak, nekeak eraginda. Bide bat edo bestea hartu, Ajangiz da erromesen elkargunea.

Etaparen bukatzeko beheranzko joera duten azkenengo 2 kilometroei

ekin aurretik, geldialditxo bat egin zaleak dira motxila sorbaldeetan, maskor zuria lepotik zintzilika eta hori koloreko gezi zein jarrabideei segika doazen ibiltariak. «Mendieta auzoko plazan batzen dira gehienetan atsedean hartzera, zerbait jan eta edatera», diote Ajangizko Udaleko ordezkariak.

Burgogananatik jaitsi berritan, erromesek aurrez aurre dutenaz goza-



**AJANGIZKO
UDALA**

Helbidea: Mendieta auzoa, z/g

Telefonoa: 94-625 19 13

Faxa: 94-625 64 99


Posta elektronikoa:

idadzkaia.ajangiz@bizkaia.org

Webgunea: www.ajangiz.net



Erremedio kalea, 24
BERMEO



☎ (+34) 946 187 703

📞 (+34) 688 899 391

reservas@aldatzeta.com



**EUSKAL
SOUVENIRS**



Andra Mari kalea, z/g
Gernika - Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs

Naturaren paraje ikusgarria

Naturaren eta atsedenen herria da Errigoiti; bisitaria naturagaz kontaktuan jarri, eta hara eta hona ibilbideak egiteko aukera eskaintzen diona.



Aisialdirako gunek atondu eta garbitu ditu Errigoitiko Udalak.

IBILBIDE ZIRKULARRA

Eleizalde-Madalen-Maiaga-Sallobante-Bizkaigane-Baraia-Larrina-Uria-Elizalde.

Zazpi kilometroko luzera dauka ibilbide zirkularrak, eta oinez egiten duenak ordubeteko bidea izango du egiteke. Mendiko bizikletaz egiteko aproposa ere bada. Ibilbide erraza da, harrikirrizko eta asfaltozko bidetik igarotzen dena. Tarte batzuetan bide zidorretik ere pasatu beharko da.

Ibilbidea luzatu gura dutenek ere, badaukate horretarako aukera. Maiagara iristean Metxikarantz hartu, eta handik Hartza eta Gorbeiarantz joan daitezke. Gero Bizkaigana iritsiko dira eta handik Sallobantera bueltatu.

Maiaga parean, inguruko pinuek oztopatzen zuten ikuspegia lehen, baina bota eta inguruko bideak garbitu zituen Errigoitiko Udalak. Hala, orain, Urdaibairanzko ikuspegi ederraz goza dezakete.

Nortasuna. Herri bakoitzak berea du, eta Errigoitik ere baditu bereak diren aberastasuna, historia eta ohitura. Bere ondarea eta bere eskaintza. Naturaren paraje ederra da.

Ez da Errigoiti ezagututa Bizkaigane egon ez denik. Naturak eskaintzen dituen kolore, usain eta irudiak ez ditu horren erraz beste ezerk eskaintzen, eta garrantzitsua da balioan jarri eta gozatzea. Hainbat ibilbide natural jarraituta ailegatu daiteke 397 metroko garaiera daukan mendi tontorrera. Eta behin han, neke handienak ere merezi izango du: ikuspegi ederrak ordura arteko ibilbide zein gogoetak alde batera uztera gonbidatzen baitu, eta arnasa sakon hartuz, aire garbia arnastu ahalko da.

Baseliza bat ere badago Bizkaigane: Santakurtz. Arkitektura aldetik balio handirik ez duen arren, bere egitura herrikoia da; aurreko baselizek baino tamaina txikiagoa dauka.

Aisialdirako gunek

Bizkaigane eskaintzen dituen bazter eta paraje horiez gain, badira aisialdirako gunek ere. Eleizalde eremua da bisitari gehien hartzen dituen, eta aisialdirako guneez baliatzen dira ingurukoak zein urrunagokoak; naturan murgilduta, nork bere jakiak prestatzeko aukera

ematen baitu belargune inguruak. Eleizalden ez ezik, Sallobanten ere badago atsedena hartu eta janaria prestatu ostean zelaiko eserlekuek lasai egoteko aukera. Errigoitiko Udalak, gainera, garbiketa lanak egin eta jolasguneak atondu ditu.

Gune horietan lasai asko jolas dezakete herritarrek jaietan. Herri txiki, baina auzo askokoa da Errigoiti, eta horregatik ospatzen dituzte hainbat festa: sanantolinak, sanisidroak, santakurtzeak eta sanjoanak, besteak beste. Askotarikoak eta leku askotan.



**ERRIGOITIKO
UDALA**

Helbidea: Uria auzoa, 1
Telefona: 94-625 41 90
Faxa: 94-625 64 69
P.e.: claucirica.errigoiti@bizkaia.org
Webgunea: www.errigoiti.net



Bermeoko hiribilduan kokatua, Urdalbako Biosferaren ondoan, Arizurieta Landetxe Ekologikoa aurkituko duzu: gure baserri ederra, naturaz inguratua, ondo komunikatua eta jasangarritasunagaz bat egina.

Arizurieta landetxeak apartamentu bat du behean 3-6 lagun artekoa, ezintasun fisikoaren dutenentzat egokitua. Eta 6 logela golko pisuan. Beheko solairuan, sukaldea eta jantoki-egongela dauzka.




Ekipamendua

- Berokuntza orokorra eta logeletan ere bai.
- TV-a eta tximinia egongelan.
- Sukalde aukera bezeroentzat.
- Liburutegia / Mahai jokoak.
- Internetera sarbidea. Doako wi-fi-a.
- Terraza solariuma gela bitan.
- Jolas gunea - berdegunea.
- Aparkalekua.

Logelak

6 logela dauzkagu, zabalak, ohe gehigarria/k jartzeko aukera dutenak, bakoitza bere komuna eta apalketa ezberdinarekin.



Ingurumenarekin konprometiturik
Landa Etxe Ekologikoaren ziguilarekin, gure establezimenduak etengabeko esfortzua egiten du ingurumena zaintzeko; ingurumena babestu eta kontserbatzeko neurriak hartzen ditugu, baliabide naturalen iraunkortasunean laguntzeko, bezeroaren erosotasunean eragin gabe.

Mañu Auzoa, 43 [BI 631 errepidea]
BERMEO - 607 48 27 00
info@arizurieta.es
www.arizurieta.es



ES-01/001/0000

A Arizurieta





Oleako burdinola eta Maumeko galtzada ezagutu ahalko dute bisitariek. MUXIKAKO UDALA

Natura eta historiaren bidea

Ibarruriko ondare natural zein historikoa ezagutzeko modu aproposa da Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea.

Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea bi lehen-gai horiek kostaldearen eta barrualdearen artean elkartrukatze erabiltzen zen bidea dugu. Horiek bakarrik ez, bestelako merkatu-gairik ere garraiatzen zituzten bertatik: garia, Bizkaiko burdina eta Gaztelako artilea, batez ere. Hori horrela, ibilbide honek benetan eginkizun garrantzitsua bete izan du, merkataritza eta giza harremanen bidea izanik.

Naturaz eta historiaren betetako bide honek Urdaibaiko Biosfera Erreserba zeharkatzen du, ostean Lea-Artibai eskualdearekin bat egiten du, eta gero Arabarantz jo. Hori egin aurretik, ibilbidea Muxikako udalerritik igarotzen da. Horren historia luzea duen bidea izanik, era guztietako monumentuak eta eraikinak aurkituko ditu ibilbidea zeharkatzen duenak: dorretxeak, itu-

rriak, jauregiak, baselizak eta karo-biak sakabanatuta aurkitzen dira bertan.

Maume auzoko altxorrak

Barrualdetik Urdaibaira iristen direnek, esaterako, Berriz eta Muxikaren mugaldean XIV eta XVI. mendeetako komunikabide nagusietako batekin topo egingo dute: Maumeko galtzada. Lauza zaharrekin egindako galtzada bikain mantendu da urteak igaro ahala. Bidea jarraituta, Ibarruriko burdinoletako bat aurkituko dugu Oromiño ibaiaren ertzean, Olea izeneko.

Muxika, Ibarruri eta Gorozikako burdinoletako produkzioa apala zen inguruko herrikoen aldean. XVIII. mendean hiru elizateetan egon ziren bost burdinoletatik Olea-

koak soilik gordetzen du egituraren zati bat: uraren sarbidea eta estolda.

Aurrera eginda, Goikoetxe base-riagaz topo egingo dugu. Maume auzoak inguruko zein kanpoko herriarren artean ospea hartu izanaren arrazoietakoa bat dator baserritik: bertan egin eta saltzen den Idiazabal jatorriko ardi gazta.



Maume auzoak duen eraikin erlijioso bakarragaz topo egingo dugu ostean: San Lorentzo baseliza. Eraikin honen inguruan daude sakabanatuta auzoko gainerako eraikinak; haien artean, Maumeko eskola zaharra. Inguruko basoek ibiltarien begirada harrapatuko dute. Erdi Aroan abeltzaintzarako edo egurra lortzeko erabiltzen ziren basoak; horregatik izango ez balitz, jatorrizko hariztiak hartuko luke gaur egun Urdaibai gehiena.



MUXIKAKO UDALA

Helbidea: Ugarte auzoa, 01

Telefona: 94-625 27 01

Posta elektronikoa:

alkatea.muxika@bizkaia.org

Webgunea:

www.muxikakoudala.eus



Bodega Berroja

TXAKOLINA

> Enpresa eta taldeentzako TXOKOAK:



- jardunaldiak • erakustaldiak •
- formakuntza • aurkezpenak •
- batzarrak...



>> Enpresentzako EKINTZAK:



- jatorduak
- teambuilding
- ginkanak
- herri kirolak...



>>> Ekintza PRIBATUAK:



- despedidak • ezkontzak •
- bataioak • lehen Jaunartzeak •
- zartaginakoak eta parriladak •
- lagunak edota senideak
- batzeko leku aproposa •
- sukaldaritza ikastaroak...

>>>> BISITAK eta DASTAKETAK:



- bodegara bisita
- ardo dastaketak
- bisita gidatua produktu
- artisauen dastaketarekin •
- bisita gidatuak bazkari eta
- afariarekin...



Ajuria [Zugastietatik Bizkaiko
balkoirako errepidea]
Berroja auzoa • MUXIKA



tf: 94-410 62 54
faxa: 94-630 93 90



txakoll@bodegaberroja.com

LEA ARTIBAI FEST '19

1-3

AZAROKO ZUBIA

LEKEITIO

2019-11-01

11.00-13.00

Bisita gidatua Santa Katalina
Itsasargira IZn + Amarra
muskulu dastatzea



SANTA EUFEMI

2019-11-01

16.30-18.00

Bisita gidatua Larruz
gastandegira + tokiko
produktuen dastatzea



DOAN

MENDEXA

2019-11-02

11.00-13.00

Bisita gidatua Marierrota IZn,
LEA ibilbidea + talo tailerra



ONDARROA

2019-11-02

16.30-18.00

Bisita gidatua Ondarroako
Zubiak + tokiko produktuen
dastatzea Beikoizini antzokian



BERTO-
BERTOKO
PRODUKTUAK
DASTATUGU



MARKINA-XEMEIN

2019-11-03

11.00-13.00

Bisita gidatua Markina- Xemein
monumentala+ dastatzea
Antsoategi Hotelean



EMAN IZENA :
www.leaartibaiturismo.com (AGENDA)
Telf. 94 616 9088 (09.00-17.00)